

Kutxa: lehen hitza euskaraz

Hitzarmena sinatua dute Buruntzaldeako sei Udalek Gipuzkoa Donostia Kutxarekin, bien arteko hartumana nagusiki euskaraz izan dadin eta entitate honek herri hauetan dituen bulegoetan langile eta bezeroek euskara erabili dezaten. Kutxak zenbait konpromisu eta neurri zehatzak hartuak ditu zerbitzua euskaraz emateko. Mikel Irizar Kutxaren hizkuntz-politikaren arduradunak eman digu hitzarmenaren egoeraren berri. /4-5



Mikel Arana EBko Gipuzkoako zerrenda burua Lasarte-Orian

Merkatuan eta Michelin enpresa atarian egon ziren EBko kideak orriak banatzen

Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskundeak martxoaren Tean burutuko dira, hemen-dik hilabete batera hain zuzen ere eta Lasarte-Orian hauteskunde giroa antzematen da dagoeneko.

Asteazkenean, Mikel Arana Ezker Batuako Gipuzkoako zerrenda buruaren bisita izan genuen herrian. Lehenik Lasarte-Oriako EBko kideekin merkaturatzen egon zen diptikoak banatzen eta ostean Michelin enpresa atarian.

Krisiaren aurkako plana

Bertan, bere partiduak krisiaren aurkako plana aurkeztuko duela aurreratu zuen, "zenbait alderdi, EAJ eta alderdi sozialistak, krisiaren aurrean bankari eta enpresa handiei dirua

eman eta familiari eta enpresa txikiak ez dute dirurik jaso, bankuek bere kontuak konpontzeko erabili baitituzte. Honen aurka zortzi ardatzeko plana aurkeztuko dugu. Ez dira hitz potoloak izango, neurri zehatzak izango dira, agente eta sindikatuak adostutakoa."

Planaren helburua sistema aldaketa eta ekoizpen sistema aldaketa izango dela azal digu Aranak, "krisiaren aurrean gehien sufritzen ari direnak langileek dira. Lotsagarria deritzogu presidentek gezurrezko espektatiba ekonomikoak egitea eta jendeari kontsumitu dezala eskatzea, kontuan izanik jendeak dirurik ez duela eta kontsumo neurrigabeak eta espekulazioak eraman gaituela egungo egoerara." •



Mikel Arana Michelin enpresaren atarian diptikoak banatu zituen.

Kiloak hizpide Udal Euskaltegian

Urtarrilaren 26an, Arantza Lorenzo Zubillaga Psikologo eta Dietistak jaien ostean hartutako kiloak hizpide *Nola egin aurre gehiegizko kiloei modu osasungarrian* azaldu zuen Udal Euskaltegian. Egunerokotasunean maiz entzuten ditugu "kilo batzuk galdu behar ditut", "han eta hemen-dik badut nahikoa kentzeko" eta horrelako espresioak. Jakina da, honen kontura milaka eskaintza ezberdin ditugula merkaturatzen. Baina horiek guztiak, epe luzearako konponbide ote? Horixe aztertu zuen Arantzak. Gainera, egiaz argaldu eta luzarora mantentzeko jarraitu beharreko oinarritzko pausoak ere azaldu zituen. •



Argazkia: Udal Euskaltegia

GIZARTEA ■ 3

Udalak gazteen ekimenak lehiaketa bidez sustatu nahi ditu

KULTURA ■ 3

Donostia Ensemble laukotea Brigidatarrenean

KIROLA ■ 6

LOKEko gimnasten taldeak hasi du denboraldi berria

GURUTZETA SAGARDOTEGIA

SAGARDOA ZER DEN BALDIN BADAKIZU, EDERKI ANTZEMANGO DIOZU GUREARI

TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA, SAGARDO NATURELEAN

Zatoz txotx egitera!

Oialume bidea 63 • Tel.: 943 552242 • Faxa: 943 552292 • ASTIGARRAGA (Gipuzkoa)
gurutzeta@gurutzeta.com • www.gurutzeta.com



Zorion-agurrak



Carla

Zorionak pitxitxi! Txokolatetzeko 3 muxu goxo gurasoak eta familia. Maite zaitugu printzesa.



Amaia

Zorionak sorgina! Musu erraldioa gure partetik.



Igone

Zorionak eta zazpi muxu handi aita, ama, Jagoba eta familiaren partetik.



Peru

Aupa Peru! Esku osoa bete duzu! ZORIONAK eta 5 muxu



Jon

Zorionak errege! Muxu asko zure bigarren urtebetetzean, Amatxo eta aitaxoren partetik



Nerea

Zorionak Nerea! Lau muxu haundi familiaren partetik.



Ander

Zorionak eta bi muxu handi gurasoak, Erika eta Nora.



Idoya

Zorionak! Eta horrela segi, nahiz eta instrumentua aldatu, behintzat parrandan!



MK

Sorgin nagusiari zorionak! Aurtengo txotxak hire kontura.



Roman eta Mari

Zorionak aiton-amonak, eta ondo-ondo pasa zuen urtebetez egunean. Muxu pottolo bat denon partetik.

Guardiak

Ostrala, 30

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 31

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Igandea, 1

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Astelehena, 2

Urbisondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 366567

Asteartea, 3

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteazkena, 4

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Osteguna, 5

Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
DYA ... 943 464622
Gurutze Gorria ... 943 363953
Udaltzainak ... 943 362442
Ertzaintza ... 943 288888
SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
Euskarako Zerbitzua 943 376184
Kiroldedia ... 943376182
Kulturetxea ... 943376181
Bakezko epaitegia ... 943371629
Zerbitzu Sozialak ... 943376179
Zentro Zibikoa ... 943363958
KIUB ... 943361605
Udal euskaltegia ... 943361621
Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180

Jaiotzak

Lara Muñiz Villarroja, urtarriaren 23an
Amaia Balerdi Irazusta, urtarriaren 22an
Ander Dafonte Rodriguez, urtarriaren 22an

Heriotzak

Manuel Serrano Martin, urtarriaren 29an 82 urte zituela
Felix Manuel Herrera, urtarriaren 27an 76 urte zituela
Antonia Alcoorta Garitacelaya, urtarriaren 26an 85 urte zituela
Bautista Urruzola Sarasola, urtarriaren 24an 73 urte zituela
Juan Luis Apalategi Barrena, urtarriaren 23an 63 urte zituela
Tomás Furundarena Beguiristain, urtarriaren 21ean 89 urte zituela

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Lasarte-Oriako zentroan pisu bat eta garajea alokatuko nituzke. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

• Urbarten garaje plaza bat alokatzen dut. Tamaina handikoa, kotxe familiarra edo furgonetarako aproposa. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

• Pisu salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berogailua eta armairu enpotratuak ditu. Tel.: 695 785 153.

• Logela bat alokatzen da etxebizitzaren batean, Zumaburuko auzoan, Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 600 612 085

• Etxea alokairuan Lasarteko erdialdean. Eraikuntza berria, 30 metroko terraza eta bista latzak. 2 logela, egongela-komedorea bat eginda, sukaldea trasteroarekin. Eguzkitsua: etxeko gela gutxiak terrazarako irteera dute. Tel.: 946563345, arratsaldez, Axier.

Salerosketak

• Salgai Suzuki Vitara 1.9d diesela, deskapotablea, 1999. Urtekoa eta 178.000 km. Harremanetarako zenbakiak 616 333 017 edo 666 116 333.

• Salgai Renault Laguna 2.2 TD autoa. Matrikula SS-AY da, zaindutakoa, egoera onean. Tel.: 659 430 640.

• Inauteritako mozorroak salgai ditut: Asterix-Obelix, iratxoak, etab. Informazio gehiago 638421713 telefono zenbakian.

• Mutilentzako jaunartzeko jantzi berriak eta oso prezio onean saltzen ditut. 688.667982

Oharretarako:

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com

Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar da euskarako klase partikularrak emateko. Interesaturata bazaude deitu. Tel.: 943 361985 edo 659 590217

Lan-eskariak

• Eskola partikularrak Elektronikako Industria-Ingeniaria: matematika, fisika, elektrizitate, elektronika eta programazioko eskola partikularrak ematen ditut. 690113447 (18:00etatik aurrera)

• Neska bat eskaintzen da sukaldari laguntzaile gisa aritzeko lanean edo haurrak zaintzeko. Tel.: 669 217 126.

Bestelakoak

• Bajista baten bila gabilta rock talde bat egiteko. Jotzeko tokiak Lasarten daukagu. Rock dantza-garria egitea gustatuko litzaiguke Funky pixkat ere erabiliz. Interesaturak, deitu telefono honetara: 617 265 307, Josu.

KAZETARIA BEHAR DA

TXINTXARRI aldizkariak kazetari bat behar du. Interesa dutenek, bidali kurrikuluma txintxarri@txintxarri.info helbidera edo deitu 943 366858 telefonora.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarteak, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Hitzarmena sinatua dute Buruntzaldeako sei Udalek Gipuzkoa Donostia Kutxa-
rekini, bien arteko hartu-eman nagusiak eskarraz izan dadin eta entitate
honek herri hauetan dituen bulegoetan langile eta bezeroek eskara erabili
dezaten. Bi helburu nagusiak horiek dira, batetik elkarren arteko harremanak,
ahuzkoak eta idatzizkoak eskarraz izango direla, ahal den guztietan, eta horretarako
batazkoekin dituen baliabideak jarriko dituzela. Beste helburua Kutxab bere bulegoetan
bezeroekin dituen harremanetan eskara ugaltzea da. Honek, kutxab konpromiso eta
neurri zehatz batzuk hartu ditu eta ahalguz berezitu egiten ari da. Mikel Irizar arduratzen da
Gipuzkoa Donostia Kutxaren baitan hizkuntzaren inguruko politikak. Berak azaldu digu zein
egoeratan den hitzarmena eta ondorengo urteetan nondik nora joko diuen.

Mikel Irizar
KUTXAren Kultura, Giza Taldeak eta Lankidezako sailako arduraduna

“Euskara txertatu egin behar da enpresen jardunean”

Astigarra, Hernani, Urteia, Andoain, Lasarte-Oria eta Usurbilgo Udalek Kutxa-
rekini eskarraz izan dadin eta entitate honek herri hauetan dituen bulegoetan langile eta bezeroek eskara erabili dezaten. Bi helburu nagusiak horiek dira, batetik elkarren arteko harremanak, ahuzkoak eta idatzizkoak eskarraz izango direla, ahal den guztietan, eta horretarako batazkoekin dituen baliabideak jarriko dituzela. Beste helburua Kutxab bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan eskara ugaltzea da. Honek, kutxab konpromiso eta neurri zehatz batzuk hartu ditu eta ahalguz berezitu egiten ari da. Mikel Irizar arduratzen da Gipuzkoa Donostia Kutxaren baitan hizkuntzaren inguruko politikak. Berak azaldu digu zein egoeratan den hitzarmena eta ondorengo urteetan nondik nora joko diuen.

zeinbat kasuetan bi aldeek dakite eskarraz baina ez dakite edo ez dute egiten. Helburua da hitzarmenaren izpirituari jarraituz, neurriekin eskarraz idatzizkoak eskarraz izango direla, ahal den guztietan, eta horretarako batazkoekin dituen baliabideak jarriko dituzela. Beste helburua Kutxab bere bulegoetan bezeroekin dituen harremanetan eskara ugaltzea da. Honek, kutxab konpromiso eta neurri zehatz batzuk hartu ditu eta ahalguz berezitu egiten ari da. Mikel Irizar arduratzen da Gipuzkoa Donostia Kutxaren baitan hizkuntzaren inguruko politikak. Berak azaldu digu zein egoeratan den hitzarmena eta ondorengo urteetan nondik nora joko diuen.

Bi plano argi daude hitzarmenean. Udalekin eta bezeroekin erlazionatuta. Zein da erazagoa eskalduntzeko?
Bi aldean egin behar duen konpromisoak maila oso altuan bereziki moduan egon gaitzeko da. Udalekin hitzarmenaren sarrerak oso onak izan dira. Konpromisoa eratu ginen Kutxab bezeroekin hitzarmenaren inguruan. Udalekin hitzarmenaren sarrerak oso onak izan dira. Konpromisoa eratu ginen Kutxab bezeroekin hitzarmenaren inguruan.

Helburu horietan zein da zailena handienari? Zer nabarmenak dira?
Zailtasun handiena jendearren ohitura aldatzea da. Langile guztiak elbidun asko sartu zailak dira. Udalekin hitzarmenaren sarrerak oso onak izan dira. Konpromisoa eratu ginen Kutxab bezeroekin hitzarmenaren inguruan.

Buruntzaldean konfektuak, langileak behin hitza emateko moduan al daude?
Bai, behin hitza emateko moduan al daude? Bai, behin hitza emateko moduan al daude? Bai, behin hitza emateko moduan al daude?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?



Mikel Irizarren esanean, Kutxabek jardunean edo erantz zuzenaren normalizazioa moduan.



Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten Kutxabek.

gero, herritar euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten Kutxabek. Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten Kutxabek. Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten Kutxabek.


Presti al da Kutxa eronkari aurre egiteko?
Bai, momentu honetan Kutxaben helburua da hizkuntzaren normalizazioa ahalik eta azkarren egiteko. Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten Kutxabek.

Bilain zuzeragitia posible litzateke?
Bilain zuzeragitia posible litzateke. Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten Kutxabek. Bezeroari lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartu zuten Kutxabek.

Urte hauetan Kutxab eskaintzen duen zerbitzuetan aldaketarik izan al duzu?
Aldaketarik izan dira, baina ez dira aldaketarik izan. Urte hauetan Kutxab eskaintzen duen zerbitzuetan aldaketarik izan al duzu?


Zerbitzuen bat hobetuko al duzu?
Gero eta komisio gehiago kobratzen ditugute, guztiak kenduko dituzte.

Zein hizkuntza erabiltzen duzu Kutxaben?
Denak euskara erabiltzen dute.



Jesusa Ibarrola

Urte hauetan Kutxab eskaintzen duen zerbitzuetan aldaketarik nabarmenduko al duzu?
Oraindik ez dute interneteko zerbitzuak erabiltzen, baina erabiltzeko asmoa dute.



Aitziber Muga

Zein hizkuntza erabiltzen duzu Kutxaben?
Beti euskara erabiltzen dugu.



Nerea Gonzalez

Kutxaben zuzendutako zerbitzuetan aldaketarik izan al duzu?
Beti euskaraz zuzentzen naiz eta beti euskaraz erabiltzen dituzte.

emateko moduan garen bakarra gurea. Etxeko lanak ezin dira erabiltzeko.

Hizkuntza politikan lido nagusiak zeintzuk dira?
Plantamendu nagusia da hizkuntza kudeatze behar dela. Hizkuntza politikaren lido nagusiak zeintzuk dira?

Barruko egoera aztertuta al daude?
Barruko egoera aztertuta al daude? Barruko egoera aztertuta al daude?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?
Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira? Zein da garrantzitsua ematen diozu hitzarmenari? Zer nabarmenak dira?

Mario Garridok irabazi du ehiza txikiko txapelketa

Buruntz-Azpi Elkarteak urtarriaren 10ean antolatua zuen bazkideen ehiza txikiko txapelketa Buruntza mendian, baina elururereatik atzeratua izan zen eta aurreko igandean, urtarriaren 25ean, burutu zen azkenean.

Senior eta beterano mailako bederatzetarik eguraldiari aurre egin eta txapelketa hartu zuten parte, baina emakumezkoen txapelketa eta junior mailan, aldiz, ez zen inor aurkeztu lehiatzeraz.

Mario Garrido izan zen txapelduna senior mailan, lau eper eta faisai bat ehizatu ostean. Luis Sanchez bost faisaiekin txapeldun ordea izan zen eta Jose Antonio Lizeaga 3. postuan geratu zen, bi eper eta faisai batekin.

Beteranoen mailan, berriz ere Antonio Carrascok irabazi zuen ehizatutako bi eperrekin esker. •

LOKEko gimnasten taldeak hasi du denboraldi berria

Nahiz eta irailean hasi zituzten entrenamenduak Maite Ruedaren neska aste honetan hasten dira lehiatzen.

LOKEko gimnasten lehenengo erronka B mailako eskolarteko txapelketako lehenengo fasea dugu otsailaren 1ean,

igandea, 10:00etatik aurrera Astigarragako kiroldegian.

Bertan taldeko bi gimnasta lehiatuko dira kadete mailan, Miren Aizpiri eta Garazi Gomez. Bi gimnastek uztailaren egingo dute lan lehenengo fase honetan. •



Beñat Elizalde A Coruñan senior mailako Estatuko judo txapelketan

LOKEko junior eta infantil mailako judoek emaitza onak lortu dituzte aurreko asteburuko lehiaketetan

Lasarte-Oriako judokak borrokaldi onak burutzen ari dira urte hasiera honetan. Asteburu honetan, Beñat Elizalde A Coruñan jokatu den Senior mailako Espainiako Txapelketan izango da. Lehenengo igandean, Errenteriko Kiroldegian, Euskadiko Junior txapelketa eta infantil mailako Gipuzkoako txapelketako kanporaketan emaitza onak izan zituzten herriko judoek.



Ezkerretik hasita, Asier Sagasti, Leire Zubizarreta, Amaia Curiel eta Iñaki Elizalde.

Iñaki Elizalde zilarrezko domina eta Amaia Curiel brontzezkoa eskuratu zituzten, Errenterian aurreko igandean burutu ziren lehiaketetan. Galtzarabardako kiroldegian Euskadiko junior txapelketa eta Gipuzkoako Infantilaren bigarren sailkapen saioa izan ziren jokoan.

Lasarte-Oriako lau ordezkari izan ziren Euskadiko txapelketan, horietatik bi juniorrak dira eta beste biak kadeteak badira ere juniorrekin aritu ziren lehiatzen.

Iñaki Elizalde borrokaldi irabazi eta zilarrezko domina eskuratu zuen eta, honi esker, Espainiako Iparraldeko sailkapen txapelketan parte hartzeko aukera izango du otsailaren. Asier Sagastik,

nahiz eta asko ahalegindu zen, ez zuen suerterik izan lehiatzen eta bosgarrena izan zen.

Bestalde, kadete mailakoak dira Amaia Curiel eta Leire Zubizarreta, baina Junior mailako txapelketan aritu ziren eta biek oso txapelketa ona egin zuten. Amaia Curiel brontzezko domina eskuratu zuen eta Leire Zubizarreta ia finalean sartu zen. "Leire oso lan ona egin zuen, finalerdietan kanporatu zuten, baina oso borrokaldi ona egin eta gero," adierazi digu Gorka Aristegi entrenatzaileak.

Judo saileko arduradunak aitortu digunez, entrenamenduetan egindako ahaleginak emaitzak ematen ditu eta ikusgarria izan da asteburuan guztiek egindako lana.

Infantil mailako kanporaketa ere oso emaitza ona izan dituzte herriko judoek. Kiara Tobajas, Josu Olmos eta Abayuba Gutierrez lehenengoak izan ziren. Imanol Gonzalez eta Unai Giraldo, berriz, hirugarrenak.

Argi dago herriko kirolariak bide onetik doazela eta domin gehiago eskuratzeko moduan daudela. •

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 31

10:30ean, Ostarlar-Lazkao (Emakumezkoen KDT F-II, txapeldunen fasea) Michelinen.

11:00etan, Ostarlar-Urola (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

15:30ean, Ostarlar-Vasconia (Emakumezkoen Liga, kopa) Michelinen.

17:15ean, Ostarlar-Intxaurren (I. Jubenila, igoera fasea) Michelinen.

17:30ean, Oiarzun-Ostarlar (II. Erregionala, igoera fasea) Ugalde-ko, Oiarztzunen.

17:30ean, Urki-Texas Lasartearra (II. Erregionala, kopa) Unbe, Eibarren.

17:30ean, Urnieta-Texas Lasartearra (I. Jubenila, kopa) Urnietan.

Igandea 1

11:00etan, Ostarlar-Touring (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

11:30ean, Aretxabaleta-Ostarlar (Infantil Txiki Kopa) Ibarren.

ARETO-FUTBOLA

Larunbata 31

17:00etan, Denak Gazte Taberna-ISU Leihok (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Eskolapioak, Tolosan.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian

9:10ean, Lurra XXI-IOB H.K.

10:00etan, Epel-Katanga

10:50ean, Izkiña- IOB H.K

11:40ean, Siglo XX-ISU Leihok

12:30ean, Ilargi-Ainhoa

13:20etan, Jordi-Tragoxxa

14:10ean, Izarra-Buenetxea

15:00etan, Morrison-Oria Txiki

15:50ean, Danena-Okela

Igandea 1

17:00etan, M. Petronor-Aldaz H.K. (Euskal Liga) Txikito frontoia, Gallartan.

HERRIKO TXAPELKETA

Michelin edo frontoian

10:00etan, Lurra XXI-Obelix

10:50ean, Biyona-Mayi

11:40etan, Oria krist.-Viña del Mar

FUTBOL 8

Larunbata 31

12:00etan, Urumea Ikastola-Lasarte BHI (Infantila eskolartekoa) Zubipe, Hernanin.

SASKIBALOA

Larunbata 31

16:00etan, Ainhoa-Oiarso (Gizonen seniorrak) Kiroldegian.

JUDO A

Larunbata 31

Asteburu osoa, LOKEko Beñat Elizalde Senior mailako Espainiako txapelketan lehiatuko da, A Coruñan.

IGERIKETA

Larunbata 31

10:00etan, Buruntzaldeko Igeri taldeko gazteak Kirol Zehaztasun Ligako 2. Jardunaldian lehiatuko dira, Kiroldegian.

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Igandea 1

10:00etan, LOKEko Miren Aizpiri eta Garazi Gomez B mailako eskolarteko txapelketako lehenengo fasean parte hartuko dute uztai lana eginaz, Astigarragako kiroldegian.

PILOTA

Ostirala 30

21:15ean, Oiarpe-Intza (Eskuz binaka, II. seniorrak) Madalensoro, Oiarztzunen.

Larunbata 31

16:00etan, Intza I-Urbil (Eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

16:00etan, Euskal Giroa I-Intza 3 (Eskuz binaka, infantilak) Igeldoan.

16:00etan, Lizardi Igeldo-Intza 2 (Eskuz binaka, infantilak) Igeldoan.

BOLO-JOKOA

Igandea 1

10:00etan, Ostarlarreko bolo sailak bikotekako txapelketan parte hartuko du, Añorgako bolatokiak.

Kiroletako oharra

XV. Pala Txapelketa

Ostarlarrek jakinarazi nahi du XV.Pala Txapelketarako izena emateko epea zabalik dagoela otsailaren 6ra arte. Beraz, parte hartu nahi duten bikoteek Ostarlarreko bulegotik pasa behar dira izena emateko, astelehenean ostiralera, 16:00etatik 20:00etara, edo 943360433 telefono zenbakira deituta.

Igerilekua itxita

Aurreko larunbatean, eguraldia zela eta, eskola kirola bertan behar geratu zen. Beraz, igeriketa txapelketa larunbat honetan izango da. Ondorioz, igerilekua itxita egongo da gainontzeko erabiltzaileentzat, goizeko 9:00etatik 13:00etara. Udak kirol instalazioak abonatuak Andoaino (943-300147) eta Usurbilgo (943-373498) igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute.

Egunero

Erakusketa

ILITZ OLANO MARTIN herritarren "Gorputzeko umoreak" margoen erakusketa. Jalgi kafe-antzokian, egun osoan.



Ostirala, 30

Kontzertua

DONOSTIA ENSEMBLE taldearen kontzertua Danok Kidek antolatutako IV. Topaketa Musika-len barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.



Larunbata, 31

Antzerkia

ZER DUZU NEGARREZ, MARIE? haurrentzako antzerkia Marie Jongh konpainiaren eskutik. Sarrera: 3, 15 euro. Kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



Bideoforuma Emakumeen Zentro Zibikoan

LOS LUNES AL SOL filma eskaini dute eta gero, Merche Humada psikologoarekin egingo da solasaldia.

Filma honetan langabezian dauden lagun kuadrilla bati buruz doa. Rico tabernan inguruan biltzen dira erreforma industrialaren ondoren langabezian geratu direnak. Gainera langabetu horiek 40 urtetik gora dituzte eta berriro lan munduan sartzeko arazoak dituzte. Bizitza berri horren ikuspuntu ezberdina du bakoitzak...

GAUR OSTIRALA 16:30EAN
EMAKUMEEN ZENTRO ZIBIKOAN
GAZTELANIAZ



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!


FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.



Larunbata, 7

Djen emanaldia

ZILÖ HERRIKO DJAREN emanaldia berak jarritako erakusketa inauguratzeko. Ttakuntronik zirkuituaren barruan. Jalgi kafe-antzokian, 0:00etatik 03:00etara.



Ostirala, 13

Jam sesioa

STAY BLUES taldea izango da gonbidatu berezia hilero egiten den Jam sesioan. Talde honek batez ere Blues musika estiloa jorratzen du. Taldeari laguntzen, herriko musikariak ere izango dira. Jalgin, 22:30ean.

Oharrak

Etxeraten elkarreratzea

Hileko azken ostiralero bezala, Lasarte-Oriako Etxeratek kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

Mus Txapelketa

Lasartearran

Lasartearra Elkarteak jakinarazi nahi du irekita dagoela XXXII. Mus Txapelketan izena emateko epea. Interesa dutenek elkartetik pasa daitezke otsailaren 22a bitartean.

Zirkoa inauterietan

Ttakunek deialdia egin nahi die herritarrei Zirko Mundialean parte hartzeko. Izena emateko azken eguna otsailaren 11a izango da eta interesa dutenek Ttakunetik pasa behar dute edo deitu 943 371448 telefonora. Gogoratu parte hartu nahi dezutenoi laguntza eskainiko dizuela elkarteak: ideak garatzeko, jantziaren eredia prestatzeko, materiala lortzeko... Bide batez herritarrei beraien balkoi eta leihoak dekoratzeko eskaera egin nahi die Ttakunek, herria girotzeko. Nahikoa da koloretako zapi

batzuk edo puxikak ipintzea, animatu!

Euskal Inauterien entsaioak

Euskal Inauterien konpartako antolatzaileak jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHI egoitzan (REM ohia) egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Parte hartzeko entsaio egun batean agertzea besterik ez duzue, animatu!!

Nazimenduko lagunak eskerrak

Nazimenduen lagunak taldeak eskerrak eman nahi dizkie abenduaren 24ean egindako eskean dirua eman zuten guztiei. Mila esker! Dirua Yankee II Nikaraguako herrixkara bideratuko da Alejandro Romoren bitartez.

Marrazketa eta pintura eskolak

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Interesa dutenek izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan egin behar dute arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulture-

txeko bigarren solairuan.

Ludotekako bigarren matrrikulazio-epaia zabalik

Amarau Ludotekako 2. matrrikulazio aldia zabalik dago. Ikasturteko lehenengo hiruhilekoaren ondoren, berriro zabaldu da matrrikulazioa egiteko aukera ekaina bitartean. Bi matrikula mota egin daitezke, hurrengo hiruhilekoarena (hau da, martxo arte) edo sei hilabetekoa (ekainera arte). Interesa duenak bertatik pasa daiteke ludoteka ikustera (Ola Kaleko 1 zenbakian) eta informazioa jasotzera. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara dago zabalik, egunero.

Ikastaroak

Jantzi tradizionalena asteazkenetan 15:00etatik 17:00etara egingo da otsailetik maiatzak bukaera arte Ttakunek Erribera kalean duen lokalean. Ikastaroak 40 euro balio ditu eta materiala bakoitzak jarriko du. Bainika egiteko ikastaroa asteartean egingo da 15:00etatik 17:00etara otsaila eta martxoan lokal berean eta 20 euro balio du. Izena emateko Ttakunetik pasa behar da edo deitu, 943 371448. Ttaku-

neko bazkideek %10eko beherapena izango dute ikastaroen prezioan.

Aranora irteera

Ttakuneko Oinatz taldeak Aranora irteera antolatu du otsailaren 8rako. Bertara joateko txartelak Ttakun Kultur elkartearen eskuratu daitezke. Hel-duen txartelak 18 euro balio ditu eta 6 euro, aldiz, haurrenak. Txartelak erosteko azken eguna otsailak 4 izango da. Informazio gehiagorako hurbil zaitzete Ttakunera edo 943 371 448 zenbakira deitu.

Sinadura bilketa

Hondakinen gaikako bilketa intentsiboa egiteko, materia organikoaren bilketa sustatzeko eta honekin ongari naturala egiteko legearen aldeko sinadurak biltzen egongo dira bihar larunbata, Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideak Zabale-tako plazan eta Kotxerasen 11:30etatik 13:30era.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
txintxarri@txintxarri.info
www.txintxarri.info

Eskutitzak

Boikota Israeli

Aste hauetan zehar Gazak jasan duen erasoak denok ezagutzen dugu; baita bere ondorioak ere: 1300etik gorako hildako, etxe, eskola, ospitalen suntsiketa, milaka eta milaka zauritu...

Urteak dira Palestina jazarpen hau jasaten daratmatzanak, baina aste hauetakoa hain izan da ikaragarria, mundu mailako telekomunikabideek ere egunero tartetxo bat ekaini diotela gai honi. Mundua hunkitu egin da.

Egun ordea, ia ez dugu honi buruzko ezer entzuten, eta hori da, hain zuzen ere, gure beldurra: komunikabideetan agertzen ez denez, jendeak ahaztea.

Horregatik, eta palestinarrek denon elkartasuna agian inoiz baina gehiago sentitzeko beharra dutenez, mundu mailan indarra hartzen ari den kanpaina bati atxikitzea erabaki dugu Gerraren Kontrako Lasarte Oriako Plataformako kideek. Kanpaina honek Israeli Boikot du izena, eta beste zenbait ekintzen artean, Israelgoak diren produktua ez kontsumitzea du helburu.

Horretarako, datozen egunetan, herriko taberna, toki publiko eta supermerkatuetan, israeldarrak diren produktuen izenak agertzen diren zerrendak egongo dira eskuragarri. Helburua, esan bezala, produktu hauek ez erostea da; Israeli munduak zer pentsatzen duen ezagutzera emateko.

Ezin dugu isilik gelditu horrelako sarraskiaren aurrean. Horregatik, herritar guztiak animatzen ditugu ekintza honetan parte hartzea, eta gogoratu nahi dizuegu, atea irekia dagoela plataforman parte hartu edo informazioa nahi duen edonorentzat, bai erakunde mailan edo bai maila indibidualen.

Hurrengo bilera, asteazkena otsailak 4, arratsaldeko 7etan Zumaburun dagoen ludotekan izango da.



Gerraren Kontrako Lasarte-Oriako Plataforma



Oria ibaia gainezka egiteko metro erdira egon zen asteartean. Bai goizean eta baita arratsaldeko lehen orduetan ere.

Ikusmina Oriak gainezka egingo ote zuen jakiteko

- Arriskuan izan zen astearte goiz eta arratsaldean
- Megafonia bidez ohartarazi zuen Udaltzaingoak

TXINTXARRI

Oria ibaia gainezka egitekotan izan zen astearte goiz eta arratsaldean. Udaltzainek eguerdian arriskuaren berri eman

zuten megafonia bidez herrian zehar. Erreka puntu batzutan bere bidetik atera bazen ere, ez zen kalte handiegirik izan Lasarte-Orian. Astearte arratsaldean Txikierditik aurrera

Usurbil aldera bidea moztuta egon zen eta erreka bestaldean Txakurzulo bidean zerrategi ondoan Oriak gainezka egin eta hainbat metroko putzua izan zen egun osoan. •



Txikierdik Zubiaren begietako bat ia urak estali zuen. Inguruko baserrietako baratzetara ura sartu zen.



Hipodromoko zubian jende asko bildu zen ibaiari begiratzeko.




Babiloni baserriraino iritsi zen ura.



Zubietako zerrategiaren parean ura atera zen bere bidetik.



Bidea eta erreka bat eginik zerrategiaren parean.



SUGATE

Sukaldeak

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak



vegasa
Beti lehenengo egunean bezala



plan renove+%10 desk.

Pintore kalea 5 • Tel./faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA
www.sugate.net